## Aktibitate klabeak:

Gure enpresaren balio proposamena kalitatean eta diseinuan oinarritzen denez, **diseinu on eta egoki bat** lortu behar dugu eta gure jarduera klabe garrantzitsuena **oihal kalitate onena, baina aldi berean, birziklatua saltzen duen enpresarekin aliantza** egitea izango litzateke.

Gainera, gure saltoki bakarra web gunea izango denez, **beste enpresekin akordio batera iristea (gure produktua bertan saldu ahal izateko) aktibitate klabe garrantzitsua da**. Horrez gain, langileak bilatzea makinekin lan egiteko ere garrantzitsua da.

Web gunea **eguneratzeaz eta bere mantenuaz** arduratzen den pertsona bat aurkitzea ere beharrezkoa da (Iñigo), web gunea saltoki garrantzitsua bilakatu daitekeelako produktua ezagunagoa izatean.

Kanaleei buruz hitz egiten badugu, aktibitate klabe garrantzitsuenetariko bat **produktua garaiz eta inperfekzio barik heltzea da**, baita gure enpresako banatzailea jarrera egokia edukitzea produktua bezeroariematean.